



OLABERRIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA
(GIPUZKOA)

2014ko URTARRILAREN 30ean
EGINDAKO OHIKO OSOKO
BILKURAREN AKTA

Olaberrian, 2014ko urtarrilaren 30ean, 18:00ak izanik Udaletxeko Pleno Aretoan bildu dira Alkatea, Jokin Garmendia Asurabarrena, Jose Manuel Garrido Fernández, Amaia Cuellar González, Jose Antonio Barandiaran Estala, Jose Bernardo Aldasoro Insausti eta Gema Echaniz Badiola eta Iñigo Sarasola Aranzasti zinegotziak.

Bertan dago eta fede ematen du Idoia Arebalo Benito, Udaleko Idazkari Kontu-hartzaileak.

Osoko Bilkura legez osatzeko beharrezkoa den zinegotzi kopurua bertaratu dela egiaztatu ondoren, gai zerrendako lehenengo puntua aztertzeari ekiten dio Udalbatzak.

AURREKO BILKURETAKO AKTEN ONARPENA.

- 2013ko azaroren 21eko Ohiko Batzarraren akta.
- 2013ko abenduaren 20ko Ez-Ohiko batzarraren akta.

Aho-batez onartzen dira biak.

ACTA DEL PLENO ORDINARIO
CELEBRADO EL 30 DE ENERO DE 2014.

En Olaberria, a 30 de enero de 2014, siendo las 18:00 horas se han reunido en el Salón de Plenos del Ayuntamiento el Alcalde Jokin Garmendia Asurabarrena, los concejales José Manuel Garrido Fernández, Amaia Cuellar González, Joseba Barandiaran Estala, José Bernardo Aldasoro Insausti, Gema Etxaniz Badiola e Iñigo Sarasola Aranzasti.

Asiste y da fe del acto la Secretaria-Interventora Idoia Arebalo Benito.

Comprobado que asiste el número suficiente de concejales para la válida constitución de la Sesión Plenaria, el Alcalde declara abierta la sesión pasándose a examinar el primer asunto del Orden del Día.

APROBACIÓN DE LAS ACTAS DE LA SESIONES ANTERIORES.

- Acta de la Sesión Ordinaria del 21 de noviembre de 2013.
- Acta de la Sesión Extraordinaria del 20 de diciembre de 2013.

Quedan aprobadas ambas por unanimidad.



OLABERRIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA
(GIPUZKOA)

ALKATETZAKO GAIAK

TEMAS DE ALCALDIA

**ALKATETZA-EBAZPENEN
EMATEA.**

BERRI

Alkate jaunak dio joan zen batzorde informatzaileetan aurreko Osoko Bilkuratik aurrera emandako Alkatetza-Ebazpenen inguruko azalpena eman zela, 177/2013tik 12/2014-ra bitartean.

Udal kideak jakinaren gainean gelditzen dira.

2014RAKO LANGILEEN EGUTEGIA

Joan zen Batzorde Informatzaileetan Udal-kideei jakinarazi zitzaien.

Gaia bozkatzeko da, proposamena gehiengo absolutuz onartzen delarik OHE taldeko aurkako botoarekin.

OHE taldeko zinegotzia den Jose Bernardo Aldasoro jaunak dio ez dagoela ados langileen duten goizeko ordutegi jarraiarekin, hau langilearen ikuspuntutik onena dela, zerbitzuaren ikuspuntutik ez ordea. Beharbada, arratsalderen bat lan egin beharko litzatekeela.

**DAR CUENTA DE LOS DECRETOS DE
ALCALDÍA.**

El señor alcalde informa de que se dio cuenta en las pasadas comisiones informativas de los Decretos de Alcaldía adoptados a partir del último Pleno Ordinario, es decir, del 177/2013 al 12/2014.

Los corporativos quedan al corriente.

CALENDARIO LABORAL 2014

Se informó a los Corporativos en la pasada Comisión Informativa.

Se procede a la votación, tras la cual se acuerda aprobar la propuesta por mayoría absoluta, con el voto en contra del grupo OHE.

El concejal del grupo OHE Jose Bernardo Aldasoro afirma que no está de acuerdo con el horario continuado de mañana puesto que si bien esto es lo deseable como trabajador, no lo es en cuanto al servicio, con lo que quizás se debería trabajar alguna tarde.



OLABERRIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA
(GIPUZKOA)

**ZORREN BARKAMEN ETA ATZERAPEN
ESKAERA.**

Joan zen Batzorde Informatzaileetan Udal-kideei jakinarazi zitzaien.

CANTERAS Y HORMIGONES LÁZARO ECHEVERRIA, S.A. enpresak Olaberriko Udaleko ikuskaritza zerbitzuek OLZI-2013-0004-ACE, OLZI-2013-0004-ACO eta OLZI-2013-0004-ACB espediente zenbakidun ikuskaritza prozeduretatik eratorritako zehapenen barkamen eskaera egin dute, zein prozedura horietatik eratorritako zorraren ordainketaren atzerapen eskaera.

Barkamen zein ordainketa atzerapena eskatzen diren udal zerga mota eta ekitaldiak honako hauek dira:

- Jarduera ekonomikoengatik zerga, 2010-2013 ekitaldiak.
- Eraikitze, instalakuntza eta obra zerga, 2009-2013 ekitaldiak.
- Zaborra biltze zerbitzua eskaintzeagatik tasa, 2009-2013 ekitaldiak.

Aipatu udal zergei dagokien zorraren ordainketaren atzerapen eskaeran, ordainketa, ikuskaritza prozeduretatik eratorritako zehapenen barkamenaren hirugarren irizpidean zehaztutakoari helduz, sei hilabete horien azkeneko egunean ordainketa osoa egitea proposatzen dute.

**SOLICITUD DE CONDONACIÓN Y
APLAZAMIENTO DE PAGO DE DEUDA.**

Se informó a los Corporativos en la pasada Comisión Informativa.

La mercantil CANTERAS Y HORMIGONES LAZARO ECHEVERRIA, S.A. ha presentado solicitud de condonación de sanción y a su vez solicitud de aplazamiento de pago de deuda derivada del procedimiento de inspección de tributos locales, nº-s de expediente OLZI-2013-0004-ACE, OLZI-2013-0004-ACO y OLZI-2013-0004-ACB, que se ha llevado a cabo por los servicios de inspección del Ayuntamiento de Olaberria.

Los tributos locales y los períodos por los cuales se solicita la condonación y fraccionamiento son los siguientes:

- Impuesto sobre actividades económicas, ejercicios 2010-2013.
- Impuesto sobre construcciones, instalaciones y obras, ejercicios 2009-2013.
- Tasa por la prestación de servicio de recogida de basura, ejercicios 2009-2013.

En la solicitud de aplazamiento de pago de la deuda correspondiente a los referidos tributos locales, proponen que el pago se realice en su totalidad, el último día del pago voluntario de seis meses establecido en el criterio tercero de condonación parcial de sanciones derivadas de procedimientos de inspección de tributos locales.



OLABERRIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA
(GIPUZKOA)

2013ko maiatzaren 23ko Batzarrean Olaberriko Udalak, udal zergen ikuskaritza prozeduretatik eratorritako zehapenen barkamenaren inguruan zenbait irizpide onartu zituen, portzentajeak honako hauek hain zuzen ere:

1) %10ekoa, zerga arloko arau haustea lehenengo aldiz egin deneko ikuskaritza prozeduretan.

2) %10ekoa, zergapekoaren kolaborazioa egon deneko ikuskaritza prozeduretan.

3) %50koa, likidazio guztiak (hala dagokion zergaren erregularizazioarenak, nola zerga zigorrarenak) luzatu eta gehienez ere, hurrengo 6 hilabeteetan ordainduko direla jasotzen duen ordainketa plan bat sinatu deneko ikuskaritza prozeduretan. Horretaz gain, barkamen portzentaje hau aplikatu ahal izateko, enpresak bere langile guztien lanpostuak mantendu behar izango ditu epe horretan.

Interesdunak, zorra barkatzeko hiru ukanbeharrak betetzen ditu, epe horretan langile guztien lanpostuak mantentzeko baldintza kontrolatzeke geldituko litzakeelarik. Honi eransten baldin badiozu, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergen martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arauak IV tituluan xedatzen duen lez, zigorraren zenbatekoa %40 murrizteko aukera dagoela zergapekoak

En Sesión Plenaria de 23 de mayo de 2013, el Ayuntamiento de Olaberria aprobó una serie de criterios de condonación de sanciones derivadas de procedimientos de inspección de tributos locales, cuyos porcentajes de condonación son los siguientes:

1) 10% para los procedimientos de inspección en los que la infracción tributaria se haya cometido por primera vez.

2) 10% para aquellos procedimientos de inspección en los que ha existido colaboración del obligado tributario.

3) 50% para los procedimientos de inspección en los que se pacte un plan de pago de liquidaciones (tanto de regularización del tributo correspondiente, como de sanción) como máximo de 6 meses desde la emisión de las liquidaciones. Además de lo anterior, para que se pueda aplicar este porcentaje de condonación, la empresa deberá mantener los puestos de trabajo de todos sus trabajadores durante dicho período.

El interesado cumple con los tres requisitos exigidos para la condonación de la deuda, quedando pendiente de control la exigencia de la permanencia de toda la plantilla de trabajadores durante ese período. Esto unido a la reducción del 40% de la sanción para los supuestos de conformidad del obligado tributario, tanto a la regularización como a la sanción, que prevé el título IV de la Norma Foral 2/2005 de 8 de marzo



OLABERRIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA
(GIPUZKOA)

erregularizazioari nahiz zigorrari adostasuna ematen dienean, zehapenaren hasierako kopurua %82-n murriztu daiteke, barkamen eta murrizketaren artean.

Gaia behar bezala eztabaidatu ondoren, udal-kideek honako erabaki hau hartu dute gehiengo absolutuz, BILDU taldeko aurkako botoarekin:

LEHENA: CANTERAS Y HORMIGONES LAZARO ECHEVERRIA, S.A. enpresari, OLZI-2013-0004-ACE, OLZI-2013-0004-ACO eta OLZI-2013-0004-ACB espediente zenbakidun ikuskaritza prozeduratik eta ondoren aipatzen diren zerga eta ekitaldietatik

- Jarduera ekonomikoengatik zerga, 2010-2013 ekitaldiak.
- Eraikitze, instalakuntza eta obra zerga, 2009-2013 ekitaldiak.
- Zaborra biltze zerbitzua eskaintzeagatik tasa, 2009-2013 ekitaldiak.

eratorritako zehapenaren %82-ko barkamena ematea, 2013ko maiatzaren 13ko Batzarreko Akordioan zehaztutako baldintzak betetzen dituelako eta bertan aurreikusten den eran eta mugen arabera.

BIGARRENA: Goian aipatutako udal zerga eta ekitaldiei dagozkion OLZI-2013-

General Tributaria del Territorio Histórico de Gipuzkoa, hace posible que la reducción total de la sanción pueda alcanzar el 82%, entre reducción y condonación.

Tras debatir el tema suficientemente, los corporativos toman el siguiente acuerdo por mayoría absoluta y con el voto en contra del grupo BILDU:

PRIMERO: Condonar a la mercantil CANTERAS Y HORMIGONES LAZARO ECHEVERRIA, S.A. el 82% de la sanción derivada del procedimiento de inspección de tributos locales, nº-s de expediente OLZI-2013-0004-ACE, OLZI-2013-0004-ACO y OLZI-2013-0004-ACB, correspondientes a los siguientes tributos:

- Impuesto sobre actividades económicas, ejercicios 2010-2013.
- Impuesto sobre construcciones, instalaciones y obras, ejercicios 2009-2013.
- Tasa por la prestación de servicio de recogida de basura, ejercicios 2009-2013al impuesto de actividades económicas 2009-2013,

por considerar que cumple con los criterios establecidos por acuerdo plenario de 23 de mayo de 2013 y en los términos y con los límites previstos en el citado acuerdo.

SEGUNDO: Acordar el aplazamiento de pago de la totalidad de la deuda derivada



OLABERRIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA
(GIPUZKOA)

0004-ACE, OLZI-2013-0004-ACO eta OLZI-2013-0004-ACB espediente zenbakidun ikuskaritza prozeduratik eratorritako zorraren ordainketaren atzerapena ONARTZEA era honetan: borondatezko ordainketarako emandako gehienezko sei hilabete horien bukaeran zor osoaren kitapena egingo da, likidazioen igorpenetik zenbatzen hasiko delarik.

HIRUGARRENA: Zehapenaren %50-aren barkamena honako baldintza honetara menpekotzea: enpresak langile plantilla mantendu beharko du, gutxienez, zorraren ordainketa epean zehar.

LAUGARRENA: Akordio hau enpresa interesdunari jakinaraztea.

EUDEL ETA IBERDROLAREN ARTEKO HITZARMENARI ATXIKIPENA, TOKIKO JABETZA PUBLIKOAREN ERABILERA PRIBATIBOA EDO APROBETXAMENDU BEREZIA EGITEAGATIK EZARRITAKO TASA UDALEK KUDEATZEARI BURUZKOA.

Joan zen Batzorde Informatzailean gaiaren berri eman zitzairen Udal-Kideei.

Gaia behar bezala eztabaidatu ondoren, udal-kideek honako erabaki hau hartu dute BILDU taldeko abstentzioarekin:

LEHENA: EUDEL eta IBERDROLAREN arteko Hitzarmenari Olaberriko Udalaren atxikipena onartzea, tokiko jabetza publikoaren erabilera pribatiboa edo aprobetxamendu berezia egiteagatik ezarritako tasa Udalek kudeatzeari buruzkoa, Olaberriko Udalarentzat interesgarri delakoan.

del procedimiento de inspección de tributos locales, nº-s de expediente OLZI-2013-0004-ACE, OLZI-2013-0004-ACO y OLZI-2013-0004-ACB, correspondientes a los tributos y períodos precitados, al último día de los seis meses otorgados como plazo máximo de pago voluntario, contados a partir de la emisión de las liquidaciones.

TERCERO: Supeditar la condonación del 50% de la sanción al mantenimiento de toda la plantilla de trabajadores de la empresa, durante al menos, el período de pago de la deuda.

CUARTO: notificar el presente acuerdo a la empresa interesada.

ADHESIÓN AL CONVENIO ENTRE EUDEL E IBERDROLA PARA LA GESTIÓN POR LOS AYUNTAMIENTOS DE LA TASA POR UTILIZACIÓN PRIVATIVA O APROVECHAMIENTO ESPECIAL DEL DOMINIO PÚBLICO LOCAL.

Se expuso el tema a los Corporativos en la pasada comisión informativa.

Tras debatir el tema suficientemente, los corporativos toman el siguiente acuerdo con la abstención del grupo BILDU:

PRIMERO: Acordar la adhesión del Ayuntamiento de Olaberria al “Convenio entre EUDEL e IBERDROLA para la gestión por los Ayuntamientos de la tasa por utilización privativa o aprovechamiento especial del dominio público local”, por considerarlo de interés para el Ayuntamiento de Olaberria.



OLABERRIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA
(GIPUZKOA)

BIGARRENA: Akordio hau EUDEL-eri jakinaraztea, formaldu ahal izateko.

SEGUNDO: Remitir el presente acuerdo a EUDEL con el fin de formalizarlo.

AZPIEGITURA ETA HIRIGINTZA

HIRI ANTOLAMENDUKO PLAN OROKORRAREN BEHIN BEHINEKO ONARPENA.

Joan zen Batzorde Informatzaileetan Udal-kideei jakinarazi zitzaien.

Urtarrilaren 23an batzorde informatzailea egin zen, Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren Hasierako Onarpenerako prestatutako dokumentua, ingurumen inaktuaren baterako ebaluazioari buruzko dagokion azterlanarekin (addenda) batera, aurkezteko.

Planeamenduaren zein ingurugiroari dagokion xehetasunak jasotzen dituen dokumentua da, eta bertan daude baita ere aurrerapen dokumentuari egindako eta Udalak onartutako iradokizunak.

Proposatzen da hasierako onarpena ematea dokumentuari eta horrekin batera jendaurrean jartzea, egokiak uste diren alegazioak aurkezteko, eta onartzen direnekin behin behineko dokumentua prestatu ahal izateko, horrek amaiera emanaz Udalak egin beharreko izapidetzeari.

Era berean, adierazten da hasierako onarpen honek berarekin dakarrela lizentziak emateko aukeraren etetea,

INFRAESTRUCTURA Y URBANISMO

APROBACIÓN INICIAL DEL PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA.

Se informó a los Corporativos en la pasada Comisión Informativa.

El 23 de enero se celebró una comisión informativa, para la presentación del documento de Aprobación Inicial del Plan General de Ordenación Urbana del municipio de Olaberria junto con el correspondiente Estudio de Evaluación Conjunta de Impacto Ambiental (addenda).

Es un documento donde se recogen los detalles del planeamiento además de las determinaciones medioambientales, y en el mismo se encuentran recogidas las sugerencias y alternativas presentadas al avance y estimadas por el Ayuntamiento.

Se propone conceder la aprobación inicial al documento, y ponerlo a su vez en exposición pública, para que se puedan presentar las alegaciones que se estimen oportunas, y con las que se estimen, poder elaborar el documento de aprobación provisional, que será el que ponga fin a la tramitación municipal.

A su vez, se comunica que este acuerdo determina por si mismo la suspensión del otorgamiento de licencias en los ámbitos en



OLABERRIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA
(GIPUZKOA)

planean xedatutakoaren ondorioz indarreko hirigintza-araubidean aldaketak izan dituzten eremuetarako.

Beraz, Udalbatzak zera erabakitzen du gehiago absolutuz, BILDU taldeko aurkako botoarekin eta O.H.E. taldeko abstentzioarekin:

LEHENA: Olaberriko Hiri Antolamenduko Plan Orokorrari, zein honi atxikituta doan ingurumen inpaktuaren baterako ebaluazioari dagokion azterlanari (addenda) hasierako onarpena ematea.

BIGARRENA: Ekainaren 30eko Lurzoru eta Hirigintza 2/2006 Legeko 90.5. artikulua dionaren arabera, dokumentua jendaurrean jartzea 45 eguneko epeaz, egoki uste diren alegazioak aurkeztu ahal izan daitezten.

HIRUGARRENA: Ekainaren 30eko Lurzoru eta Hirigintza 2/2006 Legeko 85.3. artikulua dionaren arabera, baimenak eta lizentziak emateko aukeraren etetea, planean xedatutakoaren ondorioz indarreko hirigintza-araubidean aldaketak izan dituzten eremuetarako.”

BILDU taldeko Iñigo Sarasola zinegotziak dio bere taldeak alegazioak aurkeztuko dituela.

Bere aldetik OHE taldeko zinegotziak dio ez dela berrikuspenaren prozesuan parte aktiboa sentitu.

los que las nuevas determinaciones previstas supongan modificación del régimen urbanístico vigente.

Por lo tanto, el Pleno acuerda por mayoría absoluta, con el voto en contra del grupo BILDU y la abstención del grupo O.H.E.:

PRIMERO: Aprobar inicialmente el documento de aprobación inicial del Plan General de Ordenación Urbana de Olaberria, junto con el correspondiente Estudio de Evaluación Conjunta de Impacto Ambiental (addenda).

SEGUNDO: Exponer el documento al público por el plazo de 45 días, según lo establecido en el art. 90.5 de la Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo para que se puedan presentar las alegaciones que se estimen oportunas.

TERCERO: Suspender, por el plazo de un año, el otorgamiento de toda clase de aprobaciones, autorizaciones y licencias en los ámbitos en los que las nuevas determinaciones previstas supongan modificación del régimen urbanístico vigente, según lo establecido en el art. 85.3 de la Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo.

El concejal del grupo BILDU Iñigo Sarasola manifiesta que su grupo presentará alegaciones.

Por su parte el concejal del grupo OHE manifiesta que no se ha sentido parte activa en el proceso de revisión.



OLABERRIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA
(GIPUZKOA)

Alkateak, informazio bolumen handia jaso izana ulertzen duen arren, egin diren bileretan edozein ekarpen egiteko aukera eman dela dio.

Sarasola jaunak dio bere taldeak egindako ekarpen bakarra ukatu egin zitzaiela, Jose Bernardo Aldasoro zinegotziak esan duenarekin ados dagoelarik.

Sarasola eta Alkate jaunaren artean gaiaren inguruko eztabaida hasten da, bi aldeek beraien jarrerak irmotzen dituztelarik.

HERRIGUNE S-1EKO B-3 BIS UDAL LURSAILAREN ESLEIPENA.

Joan zen batzorde informatzailean Udal – kideei gaiaren berri eman zitzaien.

2013ko abenduaren 20an, aipatu lizitazioaren kontratazio mahaia bildu zen eskaintzen irekierarako, eskaintza bakar bat aurkeztu zela egiaztatuz, Garikoitz Arrieta Zubeldia jaunarena hain zuzen ere.

Mahaiak, kontratatzeko gaitasun eta kaudimenaren inguruan aurkezten dituen agiriak egokiak direla ziurtatu ondoren, proposamen ekonomikoa ezagutarazten du, hau 10.450 eurokoa (BEZ kanpo) delarik.

Kontutan izanda lizitazio prezioa 10.435,60 eurokoa dela (BEZ kanpo), aurkeztutako proposamena egokitzat jotzen da pleguetan jasotakoa betez.

Ondorioz, Batzarrak honako hau erabakitzen du aho-batez.

LEHENENGO: AASS-en HERRIGUNE S-

El Alcalde responde que, a pesar de que comprende que se ha recibido gran cantidad de información, se han realizado muchas reuniones en las que se ha dado la posibilidad de hacer cualquier aportación.

El Sr. Sarasola afirma que la única aportación que realizó su grupo fue desechada por lo que se muestra conforme con lo manifestado con el concejal Jose Bernardo Aldasoro.

El Sr. Sarasola y el Sr. Alcalde dan comienzo un debate al respecto en la que las dos partes refuerzan sus posiciones.

ADJUDICACIÓN DE LA PARCELA MUNICIPAL B-3-BIS. DEL S-1 HERRIGUNE.

Se expuso el tema a los Corporativos en la pasada comisión informativa.

El 20 de diciembre de 2013 se reúne la mesa de contratación de la referida licitación para la apertura de plicas, la cual constata que únicamente se ha presentado una oferta por parte del Sr. Garikoitz Arrieta Zubeldia.

La mesa comprueba que la documentación referente a la capacidad y solvencia para contratar presentada es correcta y la oferta económica presentada asciende a 10.450 euros IVA no incluido.

Teniendo en cuenta que el precio de licitación era de 10.435,60 IVA no incluido, se estima que la oferta económica presentada no contraviene los pliegos.

En consecuencia, el Pleno acuerda lo siguiente por unanimidad:

PRIMERO: Adjudicar la parcela municipal



OLABERRIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA
(GIPUZKOA)

1 eremuko B-3-BIS udal lursaila Garikoitz Arrieta Zubeldia jaunari esleitzea, 10.450 euroko kopuruagatik.(BEZ kanpo)

BIGARRENA: Alkatea ahalmenu besterentze hau eskritura publiko bidez jasotzeko.

Alkate jaunak honako puntu hauek argitu nahi ditu:

- Saldu den bakarra lur-saila izan da, gainontzeko jabeek eduki dituzten baldintza berdinetan.
- Bertako markesina Udalak desmuntatu eta eramango du.
- Udalak berak lursailaren itxitura egingo du.

**OGASUNA ETA UDAL ZERBITZU
TEKNIKOAK**

**3.000 EUROTIK GORAKO FAKTUREN
ONARPENA.**

Joan zen batzorde informatzailean faktura bakoitzaren berri eman zitzairen udal-kideei.

B-3-BIS del sector S-1 HERRIGUNE de las NNSS. Al Sr. Garikoitz Arrieta Zubeldia, por el precio de 10.450 euros IVA no incluido.

SEGUNDO: Facultar al Alcalde para que proceda a formalizar la compraventa en escritura pública.

El Sr. Alcalde desea que quede claro lo siguiente:

- Se ha vendido únicamente la parcela y en las mismas condiciones que al resto de los propietarios.
- Que la marquesina la desmontará y llevará el Ayuntamiento.
- Que será el Ayuntamiento el encargado de realizar el cierre de la parcela.

**HACIENDA Y SERVICIOS TÉCNICOS
MUNICIPALES**

**APROBACIÓN DE LAS FACTURAS
SUPERIORES A 3.000 EUROS.**

Se dio cuenta de cada factura a los corporativos en la pasada comisión informativa.



OLABERRIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA
(GIPUZKOA)

2014/01/30KO BILKURA

3.000 EUROTIK GORAKO FAKTURAK

Facturas que superan los 3.000 euros

ZBK.	IZENA	CIF	ADO	AZALPENA	KOPURUA
1	EULEN S.A.	A28517308	ADO-99-1256/2013	FRA. 2704481	4.279,92 €
2	CONSTRUCCIONES FRANCISCO AIERBE, S.L.	B20756268	ADO-99-1258/2013	FRA. 53-13	26.803,81 €
3	RAMON GARMENDIA GALPARSORO	72436724H	ADO-99-1268/2013	FRA. 13/338	3.313,38 €
4	SOROA ARQUITECTOS, S.L.P.	B20758884	ADO-99-1305/2013	FRA. 75/2013	45.980,00 €
5	EXCAVACIONES GAÑERA S.L.	B20659793	ADO-99-1318/2013	FRA. 64/2013	4.574,38 €
6	GOROLDI S.L.U.	B20502613	ADO-99-1317/2013	FRA. 1301562	3.220,80 €
7	GESMUNPAL, S.A.	A48913297	ADO-99-1364/2013	FRA.2013/483	6.441,41 €
8	EULEN S.A.	A28517308	ADO-99-1365/2013	FRA. 2713296	4.279,92 €
9	ALUMINIOS ONAK, S.L.	B20721791	ADO-99-1386/2013	FRA. 544	5.082,00 €
10	GIPUZKOAKO UR KONTSORZIOA	A20471462	ADO-99-1408/2013	FRA. 980000542	25.446,73 €
11	CONSTRUCCIONES ITURRIOZ, S.A.	A20053773	ADO-99-1414/2013	FRA. 362/2013	43.568,46 €
12	CONSTRUCCIONES ITURRIOZ, S.A.	A20053773	ADO-99-1415/2013	FRA. 318/2013	58.148,03 €
13	ORUE ABOGADOS S.L.P.	B20854444	ADO-99-14/2014	4/2014	4.053,50 €
14	GESMUNPAL, S.A.	A48913297	ADO-99-1445/2013	2013/518	6.441,41 €
15	GIPUZKOAKO UR KONTSORZIOA	A20471462	ADO-99-18/2014	14VCAN20	45.641,99 €
16	GIPUZKOAKO UR KONTSORZIOA	A20471462	ADO-99-19/2014	14VSCV18	4.841,34 €
17	SASIETA MANKOMUNITATEA	Q2000539C		2014KO AURREKONTI	104.915,19 €
18	EULEN S.A.	A28517308	ADO-99-1468/2014	2725497	4.279,92 €
19					
20					
21					
22					
23					
24					
25					
26					
27					
28					
29					
30					
31					
32					
33					
34					
35					
36					
37					
38					
39					
40					
41					
42					
43					
44					
45					
46					
47					
48					

GUZTIRA 401.312,29 €

Olaberrian, 2014ko URTARRILAREN 8an



OLABERRIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA
(GIPUZKOA)

Fakturak bozkatzen dira gehiengo absolutuz onartzen direlarik, BILDU taldeko aurkako botoarekin.

Se procede a votar las facturas que son aprobadas por mayoría absoluta con el voto en contra del grupo BILDU.

DIRUZAINZAREN
INFORMAZIOA.

EGOERA.

SITUACIÓN DE TESORERÍA.
INFORMACIÓN.

Udal-kideei 2014ko urtarrilaren 20ari dagokion diruzaintzaren egoera aurkeztu zitzaizen joan zen batzorde informatzailean.

Se presenta a los corporativos en la pasada comisión informativa la situación de tesorería a fecha 20 de enero de 2014.

Udalak, kutxan, banketxe ezberdinetako kontuetan eta epe laburrera eginiko inbertsioen artean, guztira, **1.101.692,35 euro** ditu.

El Ayuntamiento dispone entre la caja, las cuentas en las distintas entidades y las inversiones a corto plazo, un total de **1.101.692,35 euros**.

Udal kideak jakinaren berri gelditzen dira.

Los Corporativos quedan al corriente.

BILDU TALDEAK AURKEZTUTAKO
MOZIOAK

MOCIONES PRESENTADAS POR EL
GRUPO BILDU

URTARRILAREN 7-KO ATXILOKETEN
INGURUKO ADIERAZPENA.

DECLARACIÓN ACERCA DE LAS
DETENCIONES DEL 7 DE ENERO.

Sarasola jaunak, ondoren jasotzen den testuaren irakurketari ekiten dio.

El Sr. Sarasola pasa a dar lectura del siguiente escrito que se transcribe íntegramente:



OLABERRIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA
(GIPUZKOA)

ADIERAZPENA

Urtarrilaren 7an, Auzitegi Nazionalaren aginduz, 8 euskal herritar atxilotuak eta ondoren espetxeratuak izan ziren, ustez ETAko kide zirelakoan. Hortaz, iraganeko gertakari ziruditenak berriro ere errepikatu dira.

Horren guztiaren aurrean, udal honek honako hau adierazi nahi du:

- 1- Olaberriko udalak uste du era horretako jarduerak oztopo bat direla gure herriak gaur egun bizi duen testuinguru politikoan, bai eta bakea eta bizikidetzaren demokratikoa ezartzeko prozesua irmotuko delako itxaropen zabalduan ere.
- 2- Olaberriko udalak eskatzen du errespetatu daitezela euskal herritar guztien giza eskubideak eta eskubide zibil eta politikoak
- 3- Olaberriko udalak eskatzen du berehala eman dadila prozedura horren gaineko ebazpen judiziala. Modu horretara, ez dira urratuko orain atxilo dauden pertsona horien eskubideak.
- 4- Olaberriko udalak euskal gizarte osoari eskatzen dio jarrai dezala lanean herritar horien eskubide guztien alde eta jarrai dezala eskubide horiek aldarrikatzen, areago testuinguru politiko honetan, denok egin behar baitugu bakea eraikitzeko eta irmotzeko.



OLABERRIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA
(GIPUZKOA)

Gaia bozkatzen da, emaitza honako hau izanik:

- Aldeko botoak: bi, BILDU taldeko zinegotziena.
- Aurkako botoak: hiru, OEO taldeko Amaia Cuellar, Joseba Barandiaran eta Jose Manuel Garrido zinegotziak.
- Abstentzioak: bi, Jokin Garmendia (OEO) eta Jose Bernardo Aldasoro (OHE) taldeko kideak.

Ondorioz, mozioa ez da onartzen.

Alkate jaunak dio bere taldearen irizpidea dela, gai supramunicipalen gaineko erabakirik ez hartzea.

EMAKUMEEN AUTONOMIA ETA ERABAKITZEKO ESKUBIDEAREN DEFENTSAN INGURUKO MOZIOA.

Alkateak dio gai hau ez duela supramunicipaltzat jotzen, herrian afektaturik egon daitezken emakumeak egon litezkeelako.

Se procede a la votación siendo el resultado el siguiente:

- Votos afirmativos: dos (2) correspondientes al grupo BILDU.
- Votos en contra: tres (3) correspondientes a los concejales del grupo OEO Amaia Cuellar, Joseba Barandiaran y Jose Manuel Garrido.
- Abstenciones: dos (2), de Jokin Garmendia (OEO) y Jose Bernardo Aldasoro (OHE).

Por lo tanto, no se aprueba la moción.

El Sr. Alcalde afirma que su grupo tiene como criterio no decidir sobre temas supramunicipales.

MOCIÓN EN DEFENSA DE LA AUTONOMÍA Y DEL DERECHO A DECIDIR DE LAS MUJERES.

El Alcalde afirma que este tema su grupo no lo considera supramunicipal por entender que puede afectar a mujeres del municipio.



OLABERRIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA
(GIPUZKOA)

EMAKUMEEN AUTONOMIAREN ETA ERABAKITZEKO ESKUBIDEAREN
DEFENTSAN

Aurreko abenduaren 20an, Estatu espainolean PP buru den Ministroen Kontseiluak “Kontzebituaren eta emakume haurdunaren eskubideen babeserako” Lege Organikoaren aurreproiektua onartu zuen, egungo osasun sexual eta erreproduktiboaren eta borondatezko haurdunaldia eteteko 2/2010 LO aldatuz. **Aldaketa horrek emakumeen autonomiaren kontra egiten du bete-betean edo, bestela esanda, oinarrizko giza eskubide gisa onartutako eskubide sexual eta erreproduktiboen aurka** (*). Hamarkadataro borrokaren bidez lortutako eskubidea zartada batez ezabatu nahi dute: emakumeek beraien bizitza sexual eta erreproduktiboaren inguruan erabakitzeko eskubidea izatea, alegia, inolako tutelarik eta jarraipenik gabe. Egin asmo duten kontrarreformak emakumeen autonomia urratu, emakumeen heldutasuna, erabakitzeko gaitasuna eta ardura ukatu eta infantilizatu egiten ditu, abortatu ahal izateko **beste batzuekiko menpekotasuna ezarriz**. Hala, **emakumeon gorputzak Estatuak eta medikuntzak interbenitutako erreproduktzio hutsera murriztu** ditu. Finean, lege egitasmo honek emakumeak gutxiesten ditu; haien borondatea eta haien bizitzarekiko kontrola haien eskuetatik kendu eta Estatuaren tutelapean ezarri.

Gaur egun, haurdunaldia bilatu gabe (nahi izan gabe) haurdun geratu izana izan ohi da haurdunaldia eteteko arrazoi nagusia. Bada, kontrarreformak emakume guzti horiek ama izatera behartu nahi ditu, emakume guzti horien bizitza baldintzatu. Eta, era berean, haurdunaldia bilatua izan arren, malformazioak edo gaixotasunak identifikatutako kasuetan erabakitzeko aukera ukatu nahi dute, edozein modutan haurdunaldiarekin jarraitzea behartuz. Bortxaketarik legokeen kasuetan soilik baimendu nahi dute abortua baina horretarako salaketaren baldintza jarritz, jakin badakitenean bortxaketa asko salatu gabe geratzen direla.

Noren izenean egin nahi dute basakeria hau? Noren hobe beharrez? Zalantzarik ez dago emakumeen bizitzak behintzat ez dituela bereziki kezkatzen. Izan ere, indarkeria matxistaren itzalpean erailtzen eta erasotzen dituzten emakumeen bizitzak ez dira Gobernu espainiarraren lehentasuna. Ez da neurri edo baliabide berezirik ezartzen etengabeko eraso eta erailketa hauekin bukatzeko. Era berean, emakumeen bizi-kalitatea okerrera doa, zerbitzu publikoak deuseztearekin batera emakumeen bizkar geratzen ari baitira gero eta zaintza-lan gehiago. Esaterako, PPren Espainiako gobernu pertsona dependienteentzako laguntzak deusezten ari da, izan helduak, adin txikikoak edo dibertsitate funtzionala duten pertsonen bideratuak. Estatuak bere zereginetatik ezabatzen dituen zaintza-lanak familien gain geratzen ari dira eta, zehazki, familiako emakumeen gain.



OLABERRIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA
(GIPUZKOA)

Esanguratsua da, baita ere, kontrarreformarekin tematzan diren bitartean, prebentzioa lantzeari uko egiten diotela, haur eta gazteen hezkuntza afektibo-sexuala garatzeko baliabideak gero eta urriagoak baitira.

Edozein modutan, gauza jakina da (eta Munduko Osasunaren Erakundeak ere hala onartzen du) lege murriztaileek ez dutela abortu-kopurua gutxituko. Haurdunaldia etetea erabakitzen duten emakumeak klandestinitatera edo atzerrira joatea behartuko ditu. Baliabide ekonomiko gutxi dituzten emakumeek klandestinitatera joko dute, emakume izateagatik jasotako bazterketari klase edo egoera sozio-ekonomikoarena batuz. Bestalde, kontrarreforman ezarri asmo diren abortatzeko baldintza horiek ibilbide eta tramite korapilatsuak ezartzen dituzte, haurdunaldia etetea atzeratuz eta emakumeon bizitzan gaineko arriskuak handituz.

Beraz, PPren gobernuak, jaio ez denaren eskubideak defendatzearen aitzakian, emakumeen eskubideak zapaldu nahi ditu, emakumeek bizitzea merezi duen bizitzak izateak ezer gutxi kezkatuta.

Emakumeen autonomiaren, bizitzaren eta gorputzaren aurkako eraso honen aurrean, Udal honek:

1. PPK aurkeztutako "Kontzebituaren eta emakume haurdunaren eskubideen babeserako" legearen aurreproiektua gaitzesten du, atzerakoia delako eta emakumeen eskubideak urratzen dituelako.
2. Udal honek emakumeen autonomiarekiko eta, zehazki, ugalketarako autonomiarekiko duten eskubidearekiko konpromisoa berresten du. Haurdunaldia etetea erabakiak emakumeen borondatea izan behar du ardatz eta baldintza nagusi.
3. Eusko Jauriaritzari/Nafarroako Gobernuari eskatzen dio emakumeek haien gorputzarekiko eta ugalketarekiko erabakiak askatasunez hartu eta gauzatu ahal izateko lege-babesa, osasun-babesa eta babes soziala berma dezala.
4. Udal honek, Haurdunaldiaren Borondatezko Eteteak osasun sistema publikoaren baitan egitearen aldeko hautua egiten du, pertsonal sanitarioaren kontzientzia objezioa arautuz eta aipatutako zentro publikoetan emakumeek Haurdunaldiaren Borondatezko Eteterako duten eskubidea gauzatu ahal izateko beharrezkoak diren talde profesionalak daudela bermatuz.
5. Udal hanek, martxoaren 3ko 2/2010 legearen baitan egiten den edozein aldaketa, emakumeentzat oinarritzekoak eta berezkoak diren eskubideak zabaltzera bideratu dadila eskatzen du, emakumeek ama izan ala ez erabakitzeko ahalmena izan dezaten.
6. Erreforma honi erantzun bateratu bat emateko mugimendu feminista eta emakumeen mugimenduak egindako lan itzelari errekonozimendua egiten dio, eta Udal honek bat egiten du eskubide hau babesteko mobilizazioekin.



OLABERRIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA
(GIPUZKOA)

7. Herritarrei dei egiten diegu emakumeen autonomiaren alde eta, zehazki, oinarritzko eskubide honen alde egin dezaten eta Espainiako gobernuaren kontrarreformaren aurkako mobilizazioetan parte har dezaten.
8. Honako pleno akordioa Eusko Jaurlaritzari/Nafarroako Gobernuari, Espainiar Estatuko Gobernuari eta Justizia Ministro den Alberto Ruiz Gallardoni helaraziko zaie.

Euskal Herrian, 2014ko urtarrilean
Euskal Herria Bildu



OLABERRIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA
(GIPUZKOA)

EN DEFENSA DE LA AUTONOMÍA Y EL DERECHO A DECIDIR DE LAS MUJERES

El pasado 20 de diciembre, el Consejo de Ministros presidido por el PP en el Estado español aprobó el anteproyecto de Ley Orgánica denominada “de Protección de los Derechos del Concebido y de la Mujer Embarazada” que modifica la actual LO 2/2010 de salud sexual y reproductiva y de la interrupción voluntaria del embarazo. Sin duda alguna, la reforma anunciada constituye uno de los hitos más vergonzantes que ha protagonizado el Estado español contra los derechos sexuales y reproductivos reconocido como un derecho humano de las mujeres a proteger (*).

La reforma anunciada supone un atentado directo y gravísimo contra un derecho que las mujeres tardamos más de 30 años de lucha en conseguir: el derecho a decidir en lo que concierne a nuestra vida sexual y reproductiva sin ser tuteladas ni perseguidas. Esta reforma nos lo arrebató e infantiliza a las mujeres al depender de otros el permiso para abortar. Reduce así el cuerpo de las mujeres a meras reproductoras intervenidas por el Estado y el cuerpo médico.

Humilla y desprecia a las mujeres al obligarnos a ser madres contra nuestra voluntad y, además, a serlo en condiciones de extrema crueldad: a tener criaturas con malformaciones a las que no se pueden garantizar vidas dignas de ser vividas ni para ellas ni para las mujeres madres y a ser madres en supuestos de violación que no hayan sido denunciadas previamente.

Y todo ello se hace al tiempo que el Gobierno del PP elimina los escasos apoyos públicos para el cuidado de personas dependientes, sean menores, mayores o personas con diversidad funcional, un trabajo realizado en su inmensa mayoría por las mujeres del entorno familiar de modo gratuito, precario e invisible. Y se hace, ignorando deliberadamente que la mayoría de las violaciones no son denunciadas por las mujeres y que, en algunos casos, como las violaciones de padres a hijas, exigirán para interrumpir el embarazo, la denuncia de éste o el consentimiento de su violador-progenitor. Y, mientras, se niegan a crear las condiciones para garantizar una educación afectivo-sexual igualitaria y prevenir la violencia machista contra las mujeres en todas sus expresiones.

Pero no sólo eso, a estas alturas hasta la OMS reconoce que las leyes restrictivas no disminuyen el número de abortos, solo provocan que las mujeres que no tienen recursos económicos lo hagan en peores condiciones, por lo que a la discriminación por razón de sexo se une la discriminación por clase o condición socio-económica. Además, dificulta de tal manera los trámites para la práctica de abortos



OLABERRIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA
(GIPUZKOA)

seguros y equitativos en los cuestionados supuestos mencionados, que provocará que estos se realicen en periodos tardíos de la gestación, aumentando los riesgos para la vida de las mujeres asociados a éstos.

En definitiva, el Gobierno del PP propone una reforma que defiende los derechos del concebido y no nacido, a costa del desprecio de los derechos humanos de las mujeres y de la garantía de que las mujeres podamos vivir vidas que merezcan la pena ser vividas. Y lo hace, además, ignorando el consenso político y social alcanzado hasta la fecha y explicitado en la aprobación de la Ley Orgánica 2/2010. Frente a este atentado contra los derechos humanos de las mujeres, este ayuntamiento

“1. Rechaza firmemente el anteproyecto para la reforma de la Ley de Salud Sexual y Reproductiva presentada por el PP, por considerarla retrógrada y una grave vulneración de los derechos de las mujeres.

2. Reitera su compromiso con el reconocimiento del derecho a la autonomía reproductiva de las mujeres, estableciendo su decisión personal como causa fundamental para la interrupción del embarazo.

3. Solicita al Gobierno de Navarra /Gobierno Vasco que garantice cobertura legal, sanitaria y social para que las mujeres puedan ejercer la libertad de opción sobre sus cuerpos, también en lo que se refiere a la reproducción.

4. Reitera su voluntad de que se las IVEs se realicen en el sistema sanitario público, regulando la objeción de conciencia del personal sanitario, y garantizando que los centros públicos dispongan de los equipos de profesionales necesarios para atender la demanda de IVE de las mujeres.

5. Se posiciona a favor de que cualquier reforma que se haga sobre Ley Orgánica 2/2010, de 3 de marzo, de salud sexual y reproductiva y de la interrupción voluntaria del embarazo, esté encaminada a ampliar los derechos que son fundamentales y específicos de las mujeres, de forma que las mujeres puedan decidir en sobre si quieren o no ser madres.

6. Reconoce el trabajo inmenso realizado por el movimiento feminista y de mujeres para articular una respuesta unitaria que frene la reforma anunciada. En este sentido, este Ayuntamiento se suma a las movilizaciones organizadas para frenar la reforma anunciada.

7.-Instamos a toda la ciudadanía a sumarse al grito colectivo de rechazo unánime a la reforma y de defensa del derecho de las mujeres a decidir libre y autónomamente sobre nuestros cuerpos.

8.- Dar cuenta del acuerdo de este pleno al Gobierno Vasco/Gobierno de Nafarroa, Gobierno del Estado español y al Ministro de Justicia, Alberto Ruiz Gallardón.

Enero del 2014, Euskal Herria
Euskal Herria Bildu



OLABERRIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA
(GIPUZKOA)

Gaia bozkatzen da, emaitza honako hau izanik:

- Aldeko botoak: bost, BILDU taldeko zinegotziena, eta OEO taldeko Jokin Garmendia, Amaia Cuellar eta Joseba Barandiaran kideena.
- Aurkako botoak: bat, OEO taldeko Jose Manuel Garrido zinegotzia.
- Abstentzioak: bat, Jose Bernardo Aldasoro (OHE) taldeko kidea.

Ondorioz, mozioa onartua gelditzen da.

BESTELAKO MOZIOAK

“TUV RHEINLAND IBERICA, S.A.ren IZENEAN AURKEZTUTAKO MOZIOA.

Derrigorrezko ibilgailuen azterketako zerbitzu publikoen ustiatze emakidaduna den TUV REHINLAND IBÉRICA, S.A. enpresaren izenean, idatzia aurkezten da, honen berri Udal-kideei ematen zaielarik eta Batzarrera ekarri bere eztabaida eta bozketarako.

Idatzian, Udaletxearen babesa eskatzen da, behar beste mugimendu burutuz Eusko Jaurlaritzara presatzeko:

1.- Beharrezko diren egin ahalak burutu ditzan lehenbailehen TUV REHINLAND IBÉRICA, S.A. enpresa kontzesiodunarekiko gatazka konpontzeko non milaka gipuzkoarri eragiten dien.

2.- EAeko gidariei ibilgailuen

Se procede a la votación siendo el resultado el siguiente:

- Votos afirmativos: cinco correspondientes al grupo BILDU, y a los miembros del grupo OEO Jokin Garmendia, Amaia Cuellar y Joseba Barandiaran.
- Votos en contra: uno correspondientes al concejal del grupo OEO Jose Manuel Garrido.
- Abstenciones: uno de Jose Bernardo Aldasoro (OHE).

Por lo tanto, queda aprobada la moción.

OTRAS MOCIONES

“MOCIÓN PRESENTADA EN NOMBRE DE TUV RHEINLAND IBÉRICA, S.A.

Se informa de que en nombre de TUV REHINLAND IBÉRICA, S.A., actual concesionaria de la explotación del servicio público obligatorio de inspección técnica de vehículos, se presenta escrito del que se da cuenta a los Corporativos y que se trae al Pleno para su debate y votación.

En el escrito se insta al Ayuntamiento para que, realizando cuantas acciones que entienda oportunas se inste al Gobierno Vasco a:

1º.- Realizar los esfuerzos necesarios al objeto de resolver cuanto antes el conflicto laboral en la empresa concesionaria TUV RHEINLAND IBERICA, S.A. que está afectando a decenas de miles de ciudadanos.

2º.- Garantizar a todos los conductores el



OLABERRIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA
(GIPUZKOA)

azterketarako IAT zentrua libreki hautatzeko eskubidea bermatzea honetarako behar diren neurriak hartuz non zerbitzua epe eta modu egokian eskaintzen delarik eta funtzio hauetarako behar beste langilerekin, horrela kalitatezko zerbitzua eskainiko delarik.

Gaia bozkatzeko da, gehiengo sinplez onartzen delarik, BILDU taldeko zinegotzien aldeko botoarekin eta OEO zein OHE taldeetako kideen abstentzioarekin.

Sarasola jaunak, bere taldearen izenean, animoak ematen dizkie langile hauei eta beraien helburuak lortzeko lanean jarraitu dezatela.

GALDERA ETA ERREGUAK

Iñigo Sarasola jaunak(BILDU) egindako galdera eta erreguak

- **Olaberriko tiro zelaian plato tiraketa.**

Sarasola jaunak honako hau adierazten du hitzez-hitz:

derecho a elegir libremente la estación ITV donde desee realizar la inspección técnica de vehículos entre las habilitadas por la CAPV tomando las medidas necesarias que obliguen a la concesionaria a satisfacer las demandas de inspección existentes de manera que el servicio se presente en todo momento dentro del plazo y forma y con el personal necesario para realizar todas las funciones , de modo que el servicio pueda prestarse en condiciones idóneas de calidad.

Se procede a la votación siendo aprobada por mayoría simple, con el voto a favor del grupo BILDU y la abstención de los miembros del grupo OEO y OHE.

El Sr. Sarasola, en nombre de su grupo quiere darles ánimos a este grupo de trabajadores y que sigan adelante con sus reivindicaciones.

RUEGOS Y PREGUNTAS

Ruegos y preguntas formuladas por Iñigo Sarasola en nombre del Grupo BILDU.

- **Tirada de platos en el campo de tiro de Olaberria.**

El Sr. Sarasola manifiesta literalmente lo siguiente:



OLABERRIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA
(GIPUZKOA)

Aurreko ostegunak 23an, Idiazabalgo udalak San Blaseko festetako programaren barruan, urtarrilak 25erako plater tiraketa bat antolatu behar zuela Olaberriko tiro plato eremuan jakinarazi genion Olaberriko alkateari.

Bertan, ekintza hori burutzeko udalak emaniko baimena eta nori helarazi zaion argitzeko eskatu genion alkate jaunari.

Aurkeztu dituzuen arau subsidiarioetan, tiro plato gunehori kutsatuta dagoela onartzen duzue eta bertan ematen den plater tiraketa dela hori kutsatzearen arrazoia. Bertan hainbat proposamen ere aurkezten dituzue kutsatze horren garbiketa burutzeko eta aurre egiteko.

Aurreko urtarrilaren 25ean, plater tiraketa zuek zehazten dituzuen datetatik kanpora burutu da. Oraindik gainera, nork kudeatzen duen tiro plato eremua argitu ez diguzuela ikusirik, beharrezkotzat jotzen dugu kutsatze honen arduradunak nortzuk diren jakitea, eremu horren garbiketa beraien kargu geratuko dela ziurtatzeko.

Olaberriko herriak ezin du bere gain hartu eremu horren garbiketa. Plater tiraketa burutzen, antolatzen eta gestionatzen dutenak dira eremu horren kutsatzearen arduradun bakarrak eta beraiei dagokie gunehori garbitzea eta udalari hori beteko dela ziurtatzea.

Alkate jaunaren erantzun laburbilduak:

- Jaurtiketarako baimen eskaera nork egin duen jakiteko, idatzizko eskaera bat aurkeztu beharko da, eta era berdinean erantzungo da.
- Kutsadurari dagokionez, oraingoz dagoen gauza bakarra datuen harrera bat izan da, gunehorretan tiraketak eduki lezakeen afekzioari buruzkoak, hauek aintzakotzat hartuko direlarik hartu beharreko neurriak erabakitzeke garaian, lursailaren garbiketa barne.
- Jaurtiketak egiteko daten inguruan, Arau Subsidiarioek ez dute datarik zehazten, Sarasola jaunak dioen

Respuestas sintetizadas del Sr. Alcalde:

- Para conocer quién ha realizado la solicitud de permiso para la tirada, se deberá presentar una solicitud por escrito y se responderá ídem.
- En cuanto a la contaminación, lo que se ha hecho hasta ahora es recibir unos datos de las posibles afecciones del tiro en la zona, datos que se tomarán en cuenta para tomar decisiones, entre otras, una posible limpieza del terreno.
- En cuanto a las fechas de tirada, no hay unas fechas de tirada aprobadas por las Normas Subsidiarias, tal y como afirma el Sr. Sarasola.



OLABERRIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA
(GIPUZKOA)

bezala.

Jose Bernardo Aldasoro jaunak(OHE)
egindako galdera eta erreguak

- **Errekaldeko pisuko alokairua**

Berririk ba al dago horren inguruan?

Alkateak erantzuten dio txostenaren igorpena gizarte ongizateko teknikariari eskatu diola.

Bertaratutako jendeak aurkeztutako
galdera eta erreguak

Aitor Urkiola jaunak egindakoak:

- HAPO partehartzailea baino informatiboa izan dela salatzen du.

Alkateak, gai zehatz hori tratatzeko hamar bilera egin direla erantzuten dio eta nahiz eta bere taldeak aukera eduki bera bileretara eramateko, ez du egin.

- Alkateari "supramunizipal" hitzaren esanahiari buruz galdetzen dio.

Alkateak erantzuten dio balitekeela hitz hori aproposena ez izatea, baina azken finean adierazi nahi duena da bere taldearen helburua herri honetako gaiak kudeatzea dela.

- Hurrengo ekainaren 8-an erabakitzeko eskubidearen alde antolatu den Durangotik Iruñararteko giza katean parte hartzeko gonbidapena luzatzen du.

Ruegos y preguntas formuladas por Jose
Bernardo Aldasoro (OHE)

- **Alquiler del piso de Errekalde:**

Hay alguna novedad al respecto?

El Alcalde le responde que ya le ha encargado la emisión del informe a la técnico de servicios sociales.

Ruegos y preguntas formuladas por el
público

Formuladas por el Sr. Aitor Urkiola:

- Considera que el PGOU ha sido informativa más que participativa.

El Alcalde, le responde que se han organizado diez reuniones para tratar exclusivamente el tema y que aunque su grupo ha tenido oportunidad de llevarle a él como participante no lo ha hecho.

- Le pregunta al Alcalde qué entiende él por "supramunicipal".

El Alcalde le responde que quizás ese termino que ha utilizado no sea el más correcto, pero que lo que ha querido decir es que el objetivo de su grupo es el de gestionar los asuntos que afectan al municipio y sus vecinos.

- Invita a los presentes a un acto que se celebrará consistente en una cadena humana que se va a organizar desde Durango a Pamplona el día 8 de junio a favor del derecho a decidir.



OLABERRIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA
(GIPUZKOA)

Aranzegi jaunak adierazitakoak:

Berunagatiko kutsadura zientifikoki frogatuta dagoen gauza bat da.

Alkateak ondorengoa aipatzen bukaera ematen dio gaiari: jaso diren datuen inguruan, Udalak egin behar duena, bere hausnarketaz gain, da jasotakoa dagokien erakundeei jakinaraztea beraiek zehaztu diezaguten zer egin behar dugun.

Eta aztertzeko beste gairik egon gabe, Alkate jaunak bukatutzat ematen du bilkura arratsaldeko seiak eta hogeita hamaika minutu direnean, eta nik, Udalbatzako Idazkaria naizenez, adierazitako guztiaren Akta egiten dut.

ALKATEA / EL ALCALDE

Formuladas por el Sr. Aranzegi:

Afirma que la contaminación por plomo está científicamente demostrado.

El Alcalde concluye diciendo lo siguiente: en cuanto a los datos recibidos, la obligación del Ayuntamiento, además de realizar su propia reflexión, es dar traslado de los mismos a las instituciones correspondientes para que sean ellas las que nos indiquen qué es lo que el Ayuntamiento debe hacer.

Y sin más asuntos por tratar, el Sr. Alcalde da por terminada la sesión cuando son las dieciocho horas y treinta y un minutos, y yo, la Secretaria de la Corporación, expido el Acta de todo lo manifestado.

IDAZKARIA / LA SECRETARIA